



OLABERRIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA

## **2023ko UZTAILAREN 13an EGINDAKO EZ-OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA.**

Olaberrian, 2023ko uztailaren 13an, arratsaldeko 18:00ak izanik Udaletxeko Pleno Aretoan bildu dira jarduneko Alkatea eta era berean hautetsia den, Jokin Garmendia Asurabarrena (O.E.O), zinegotzi hautetsiak Nerea Castaño Irazola (O.E.O), Jon Renteria Goitia (O.E.O), Irene Irastorza Asurabarrena (O.E.O), Aitor Urkiola Ugartemendia (EH-BILDU) eta Isa Herrera Carrasco (EH-BILDU).

Ezin etorria adierazi du Ainhoa Goiburu Eskitxabelek (EH-BILDU) .

Bertan dago eta fede ematen du Iñaki Alonso Antolin Idazkari Kontuhartzaileak.

Osoko Bilkura legez osatzeko beharrezkoa den zinegotzi kopurua bertaratu dela egiaztatu ondoren, gai zerrendako lehenengo puntua aztertzeari ekiten dio Udalbatzak.

### **1.- ALKATE JAUNAK EGINDAKO IZENDAPENEN BERRI EMATEA.**

Udalbatzari jakinarazi zaio ekainaren 26ko 149/2023 alkatetza-dekretuaren bidez Nerea Castaño Irazola zinegotzia izendatu duela alkateorde. Izendapen hau 2023ko ekainaren 29ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu da, 125 zenbakian.

## **ACTA DEL PLENO EXTRAORDINARIO CELEBRADO EL 13 DE JULIO DE 2023 .**

En Olaberria, a 13 de julio de 2023, siendo las 18:00 horas se han reunido en el Salón de Plenos del Ayuntamiento el Alcalde, Jokin Garmendia Asurabarrena (O.E.O), los concejales Nerea Castaño Irazola (O.E.O), Jon Renteria Goitia (O.E.O), Irene Irastorza Asurabarrena (O.E.O), Aitor Urkiola Ugartemendia (EH-BILDU), Isa Herrera Carrasco (EH-BILDU).

Excusa su presencia Ainhoa Goiburu Eskitxabel (EH-BILDU) .

Asiste y da fe del acto el Secretario-Interventor Iñaki Alonso Antolin.

Comprobado que asiste el número suficiente de concejales para la válida constitución de la Sesión Plenaria, la Corporación pasa a estudiar el primer asunto del orden del día.

### **1.- DACIÓN CUENTA DE LOS NOMBRAMIENTOS REALIZADOS POR EL SR. ALCALDE.**

Se da cuenta al Pleno que mediante decreto de alcaldía 149/2023, de 26 de junio, ha nombrado Teniente de Alcalde a la concejal Nerea Castaño Irazola. Este nombramiento se ha publicado en en el Boletín Oficial de Gipuzkoa n.º 125 de 29 de junio de 2.023.



OLABERRIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA

Udalbatzako kideak jakinaren gainean gelditzen dira.

**2.- UDALEKO TALDE POLITIKOEN ERAKETAREN BERRI EMATEA ETA BOZERAMAILEAK IZENPENAREKIN.**

Jarraian, osoko bilkurari jakinarazi zaio legez ezarritako epearen barruan bi udal-talde politiko eratu direla, eta horien bozeramaile titularrak eta ordezkioak honako hauek direla:

OLABERRITARRAK                                ETA  
OLABERRIAREKIN            UDAL      TALDEA  
(O.H.O.):  
Bozeramaile titularra: Nerea Castaño  
Irazola.  
Ordekoa:        Jon        Renteria        Goitia.

EH BILDU OLABERRIA UDAL TALDEA:  
Bozeramaile titularra: Aitor Urkiola  
Ugartemendia  
Ordekoa: Isa Herrera Carrasco.

**3.-                    INFORMAZIO                    BATZORDE IRAUNKORRAK SORTZEA ETA HAUEN OSAKETA ERABAKITZEA.**

Toki Erakundeen Antolaketa, Jarduera eta Araubide Juridikoari buruzko Erregelamendua onartzen duen 2568/1986 Errege Dekretuaren 38. artikuluan ezarritakoaren arabera, ondoren aipatzen diren Informazio Batzordeak sortzen dira, eta batzordeburuak aipatzen diren korporaziokideak dira:

1.- AZPIEGITURA, HIRIGINTZA,

Los Corporativos quedan al corriente.

**2.- DACIÓN DE CUENTA DE LA CONSTITUCIÓN DE LOS DIFERENTES GRUPOS POLÍTICOS MUNICIPALES Y DESIGNACIÓN DE PORTAVOCES.**

Seguidamente se da cuenta al Pleno de que dentro del plazo legalmente establecido, se han constituido dos grupos políticos municipales, siendo sus portavoces titulares y suplentes los que se detallan:

OLABERRITARRAK ETA  
OLABERRIAREKIN UDAL TALDEA  
(O.H.O.):  
Bozeramaile titularra: Nerea Castaño  
Irazola. Ordekoa: Jon Renteria Goitia.

EH BILDU OLABERRIA UDAL TALDEA:  
Bozeramaile titularra: Aitor Urkiola  
Ugartemendia  
Ordekoa: Isa Herrera Carrasco.

**3.- CREACIÓN Y COMPOSICIÓN DE LAS COMISIONES                    INFORMATIVAS PERMANENTES.**

Según lo establecido en el artículo 38 del Real Decreto 2568/1986, por el que se aprueba el Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales, se crean las Comisiones Informativas que se citan a continuación, siendo sus Presidentes los corporativos que se mencionan:

1.- INFRAESTRUCTURAS, URBANISMO,



OLABERRIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA

NEKAZARITZA, OGASUNA ETA  
KONTUAK ETA UDAL ZERBITZU  
TEKNIKOAK, PRESIDENTEA: JOKIN  
GARMENDIA

2.- KULTURA, KIROLA, EUSKARA ETA  
HEZKUNTZA, PRESIDENTEA: JON  
RENERIA

3.- GIZARTE, GAZTERIA,  
PRESIDENTEA: NEREA CASTAÑO.

4.- JAIK, PRESIDENTEA: NEREA  
CASTAÑO.

5.- BERDINTASUNA ETA MEMORIA,  
PRESIDENTEA: IRENE IRASTORZA

6.- INGURUMENA, PRESIDENTEA:  
AITOR URKIOLA

Zinegotzi guztiak aipatutako batzorde  
guztietako kideak izango dira, eta parte  
hartu ahal izango dute batzorde guztietan.

Bozkatu ondoren, proposamena onartu  
da, aldeko 4 botorekin (O.E.O.), kontrako  
0ekin eta 2 abstentziorekin (EH BILDU).

Botoak ateratzeko txandan, Urkiola jaunak  
honako hau adierazi du:

### **BATZORDEEN BANAKETA:**

Huategundetan izandako emaitzari ez dio erantzuten planteatu dezuten batzordeen banaketakin. Sei batzordeetatik ulertu dezakegu ingurumena izan daitekeela batzorde bat izendatzeko modukoa hartzen duen dimentsioarekin eta horrela hartzen dugu batzorde hau arduraz orainarte bezela.

Baino Euskera bere huts hutsean eskeintzea burla-eskainka bat iruditzen zaigu. Euskerak bere kultura osotasunean izan behar du edo ez da izango. Eragileekin eta herrian egiten diren dinamikarekin jarraituko dugu lanean, Euskaraldian, Korrikan, Errigoran, eta orokorrean euskalgintzan.

AGRICULTURA, HACIENDA Y CUENTAS  
Y SERVICIOS TECNICOS MUNICIPALES  
PRESIDENTE: JOKIN GARMENDIA

2.- CULTURA, DEPORTE, EUSKARA Y  
EDUCACION  
PRESIDENTE: JON RENTERIA

3.- SERVICIOS SOCIALES Y JUVENTUD  
PRESIDENTA: NEREA CASTAÑO.

4.- FIESTAS  
PRESIDENTA: NEREA CASTAÑO

5.- IGUALDAD Y MEMORIA,  
PRESIDENTA: IRENE IRASTORZA

6.- MEDIO AMBIENTE,  
PRESIDENTE: AITOR URKIOLA.

Todos los concejales serán miembros de  
todas las comisiones mencionadas,  
pudiendo participar de forma indistinta en  
todas ellas.

Sometida a votación la propuesta resulta  
aprobada por 4 votos a favor (O.E.O.), 0  
en contra y 2 abstenciones (EH BILDU).

En el turno de explicación de voto el Sr.  
Urkiola manifiesta lo siguiente:



OLABERRIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA

Beraz ordezkariak izan dugun emaitzari ez da elkarlanaren izaeraren borondaterik agertzen edo ikusten.

**4.- UDALAK ORGANOKOLEGIATUETAN IZANGO DITUEN ORDEZKARIAK IZENDATZEA.**

Toki Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duen 2568/1986 Errege Dekretuaren 38. artikuluan ezarritakoaren arabera, Osoko Bilkurak kide anitzeko organoetako ordezkarien izendapenaren gaia aztertuko du. Hauxe da Alkateak aurkeztutako proposamena:

**4.- NOMBRAMIENTO DE LOS REPRESENTANTES DE LA CORPORACIÓN EN LOS ORGANOS COLEGIADOS.**

Según lo establecido en el artículo 38 del Real Decreto 2568/1986, por el que se aprueba el Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales, el Pleno pasa a estudiar el tema del nombramiento de sus representantes en órganos colegiados. La propuesta presentada por la Alcaldía es la siguiente:

	TITULARRA/TITULAR	ORDEKOA/SUPLENTE
EUDEL	Jokin Garmendia	Nerea Castaño
GOIEKI	Jokin Garmendia	Jon Renteria
GOIERRI FUNDAZIOA	Jokin Garmendia	Jon Renteria
GOIERRI BEHEKO INDUSTRIALDEA	Jokin Garmendia	Nerea Castaño
GOIMEN	Jokin Garmendia	Jon Renteria
TOLOSAKO HILTEGIA	Jokin Garmendia	Jon Renteria
SASIETA	Jokin Garmendia	Nerea Castaño
UR KONTSORTZIOA	Jokin Garmendia	Nerea Castaño
HAURRESKOLAK PARTZUERGOA	Jon Renteria	Jokin Garmendia
HERRIESKOLAKO ORGANOKOLEGIATUETAN	Jon Renteria	Jokin Garmendia

Bozkatu ondoren, proposamena onartu da, aldeko 4 botorekin (O.E.O.), kontrako botorekin (EH BILDU).

Sometida a votación la propuesta resulta aprobada por 4 votos a favor (O.E.O.) y 2 en contra (EH BILDU).

Goiekirako ordezkariak izendatzeari dagokionez, alkateak esan du EH BILDUko zinegotziek atea irekita dituztela, aurreko legegintzaldian bezala, energia mahaiaren eta gobernantza ereduaren mahaiaren.

En relación al nombramiento de representantes para Goieki, el Sr. Alcalde manifiesta que tal y como ha venido siendo en la legislatura pasada, en la mesa de energía y en la de modelo de gobernanza, los concejales de EH BILDU



OLABERRIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA

## **5.- OSOKO BILKURA ETA BATZORDE INFORMATIBOEN MAIZTASUNAREN INGURUKO ERABAKIAK.**

Alkateak osoko bilkuren eta batzordeen funtzionamendu orokorra proposatu die zinegotziei, honela:

1. Ohiko osoko bilkurak hilabete bakoitietako hirugarren ostegunetan egingo dira, eta beste bi urrian eta abenduan. Hasiera batean, arratsaldeko 6etan. Guztira, urtean zortzi osoko bilkura arrunt egingo dira.

2. Osoko bilkura egin aurreko ostegunean informazio-batzordea egitea. Hau da, hileko 2. ostegunean, printzipioz arratsaldeko 6etan.

3. Batzorde informatiboa egin aurreko ostegunean irekitako Batzordea egitea. Hau da, hileko 1. ostegunean, printzipioz arratsaldeko 6etan.

Bozkatu ondoren, proposamena onartu da, aldeko 4 botorekin (O.E.O.), kontrako 0rekin eta 2 abstentziorekin (EH BILDU).

## **6.- ALKATE JAUNAREN DEDIKAZIOA ETA ORDAINSARIEN ZENBATEKOA FINKATZEA.**

Udalbatzari proposatzen zaio alkateari dedikazio partziala aitortzea, honako baldintza hauetan:

1. Arduraldi partzialeko modalitatean beteko du kargua, % 50ean.

tienen las puertas abiertas.

## **5.- DECISIÓN RELATIVA A LA PERIODICIDAD DE LAS SESIONES DEL PLENO.**

El Alcalde propone a los concejales el funcionamiento general de los Plenos y Comisiones de la forma siguiente:

1. La celebración de los Plenos Ordinarios será los terceros jueves de de los meses impares, mas otros dos en los meses de octubre y diciembre. En principio a las 6 de la tarde. En total se celebrarán ocho plenos ordinarios anuales.

2. La celebración de la Comisión informativa el jueves anterior al de la celebración del Pleno. Es decir 2º jueves de mes, en principio a las 6 de la tarde.

3. La celebración de la Comisión abierta el jueves anterior al de la celebración de la Comisión informativa. Es decir 1º jueves de mes, en principio a las 6 de la tarde.

Sometida a votación la propuesta resulta aprobada por 4 votos a favor (O.E.O.), 0 en contra y 2 abstenciones (EH BILDU).

## **6.- FIJACIÓN DE LA DEDICACIÓN Y CUANTÍA DE LAS RETRIBUCIONES DEL SR. ALCALDE.**

Se propone al Pleno reconocer al Alcalde una dedicación parcial en las siguientes condiciones:

1. Ejercerá su cargo en la modalidad de



OLABERRIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA

2. Ordainsari gordina: 22.500,00 euro gordin urtean; zenbateko hori 14 hilekotan banatuko da, eta atzeraeraginezko ondorioak izango ditu ekainaren 17tik aurrera.

3. Ordainsariak kobratzeko, enplegatu publiko baten lanaldiaren % 50eko dedikazioa justifikatu beharko du.

4. Alta emango da Gizarte Segurantzaren Araubide Orokorrean.

5. Ez du ordainsaririk jasoko kide anitzeko organoetara joateagatik.

6. Ordainsariak urtero eguneratuko dira, udaleko langileen ordainsarietako oro har egiten duten ehuneko berean, abenduaren 21eko 7/2018 Foru Arauan edo hura ordeztzen duen arauan aurreikusitako mugarekin.

7. Soldata % 100eraino osatuko da laneko bajaren kasuan (A.E.), Udaleko langileei egiten zaien bezala.

Bozkatu ondoren, proposamena onartu da, aldeko 4 botorekin (O.E.O.), kontrako 0ekin eta 2 abstentziorekin (EH BILDU).

**7.- ZINEGOTZIEI DIETAK EZARTZEA  
BATZORDE ETA OSOKO  
BILKURETARA JOATEAGATIK, ETA  
KONPENTSAZIO EKONOMIKOAK**

dedicación parcial, al 50%.

2. Retribución bruta: 22.500,00 euros brutos anuales; dicha cantidad se repartirá en 14 mensualidades y tendrá efectos retroactivos desde el 17 de junio.

3. Para el cobro de las retribuciones deberá justificar una dedicación del 50% de la jornada de trabajo de un empleado público.

4. Se dará de alta en el Régimen General de la Seguridad Social.

5. No percibirá retribuciones por asistencia a órganos colegiados del que forme parte.

6. Las retribuciones serán anualmente actualizadas en el mismo porcentaje en que, con carácter general, lo hagan las retribuciones de los empleados/as del Ayuntamiento, con el límite previsto en la Norma Foral 7/2018, de 21 de diciembre, o norma que lo sustituya.

7. Se complementará hasta el 100% el sueldo en caso de baja laboral (I.T.) de la misma forma que se hace a los empleados/as del Ayuntamiento.

Sometida a votación la propuesta resulta aprobada por 4 votos a favor (O.E.O.), 0 en contra y 2 abstenciones (EH BILDU).

**7.- FIJACIÓN DE DIETAS A LOS  
CONCEJALES POR ASISTENCIA A  
COMISIONES Y PLENOS Y DE LAS  
COMPENSACIONES ECONÓMICAS**



OLABERRIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA

## **EMATEA UDALAREN BESTE BILERA EDO EKITALDI BATZUETARA JOATEAGATIK.**

Osoko Bilkurari proposatzen zaio kide anitzeko organoen bileretara (osoko bilkurak eta informazio-batzordeak) joateagatiko zinegotziei honako dieta hauek ezartzea:

1. Ohiko Osoko Bilkuretara joatea, 200 euro zinegotzi bakoitzeko (gehienez 8 osoko bilkura urtean).
2. Ohiko osoko bilkuren aurreko Informazio Batzordeetara joatea: 100 euro zinegotzi bakoitzeko (gehienez 8 batzorde/urte).
3. Osoko bilkurak eta batzordeak ez diren beste bilera edo ekitaldi batzuetara joateagatik lanorduak galtzeagatik ordaindu beharreko kalte-ordaina:

Aldez aurretik baimena eskatu beharko zaio alkateari. Onarpena jaso ondoren, zinegotziak lan egiten duen enpresan ekitaldi horretara joateagatik benetan jasotzen ez duen soldataren pareko zenbatekoa ordainduko zaio. Horretarako, zenbateko horren ziurtagiria aurkeztu beharko du dagokion enpresak.

Halaber, udalbatzako kide guztiei bizitza eta ezintasun iraunkor oso edo absolutu bat aseguru bat egitea proposatzen da, Udaleko langileen zenbateko berberekin.

Bozkatu ondoren, proposamena onartu da, aldeko 4 botorekin (O.E.O.), kontrako 0rekin eta 2 abstentziorekin (EH BILDU).

## **POR AUSENCIAS LABORALES MOTIVADAS POR ASISTENCIA A OTRAS REUNIONES O ACTOS DEL AYUNTAMIENTO.**

Se propone al Pleno establecer a los Concejales por asistencias a reuniones de órganos colegiados (Plenos y Comisiones informativas) las dietas siguientes:

1. Asistencia a Plenos ordinarios, 200 euros por cada concejal (máximo 8 plenos/año).
2. Asistencia a Comisiones Informativas previas a los plenos ordinarios: 100 euros por cada concejal (máximo 8 comisiones/año).
3. Indemnización por pérdida de horas de trabajo por asistencia a otras reuniones o actos distintos a Plenos y Comisiones:

Previamente se deberá solicitar a autorización al Sr. Alcalde. Una vez concedida la misma se indemnizará por el importe equivalente al sueldo que por asistir a ese evento realmente deje de percibir en la empresa donde el concejal trabaje. Para ello se requerirá la certificación del mencionado importe a la empresa correspondiente.

Se propone también realizar a todos los corporativos un seguro de vida e incapacidad permanente total o absoluta por las mismas cuantías del de los empleados/as del Ayuntamiento.

Sometida a votación la propuesta resulta aprobada por 4 votos a favor (O.E.O.), 0 en contra y 2 abstenciones (EH BILDU).



OLABERRIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA

## 8.- UDALEKO TALDE POLITIKOEN DIRU-ESLEIPENAK FINKATZEA.

Osoko Bilkurari proposatu zaio talde politikoenentzako esleipenak honela ezartzea:

1. Udal talde politiko bakoitzeko 100 euroko finko bat hilean.
2. Zinegotziko 25 euroko aldakorra hilean.

Atzeraeraginezko ondorioak izango ditu ekainaren 17tik aurrera.

Bozkatu ondoren, proposamena onartu da, aldeko 4 botoekin (O.E.O.), kontrako 0ekin eta 2 abstentziorekin (EH BILDU).

Aitor Urkiolak hartzen hitza hurrengoa adierazteko:

### **LAN EGITEKO MODUAK:**

Azken urte ta erdian ez da lan batzorde irekirik egin eta batzordeen osaketan, aipatu ere ez du egiten. Ez da gure lan egiteko modua. Eske jendea ez da etortzen! Entzun izan dugu. Guk jarri behar ditugu bideak jendearengana iristeko, lan batzorde irekiak ez baditugu jartzen nekez etorriko zaigu jendea. Badaude bestelako moduak ere. Ta egin ditugu. Busa eta etxebizitzaren gaiarekin parte hartze prozesuak, inkestak, galdetegiak ingurumeneari. Badaude formulak eta gure ardura da horiek martxan jartzea.

### **PROPOSAMENA BATZORDE BATEKIN:**

**Komunitatea, zaintza, ongizatea eta aniztasuna** gaiak lantzeko bi hilabetero (edo adostu daiteke maizago behar den) batzorde bat eratzea proposatzen dugu. Bertako partaideak honakoak aurreikusten ditugu: Udaleko ordezkariak, gizarte laguntzailea, zaintza laguntzaileak edo langileak, medikua edo osasun

## 8.- FIJACIÓN DE LAS ASIGNACIONES DE LOS GRUPOS POLÍTICOS MUNICIPALES.

Se propone al Pleno establecer a los asignaciones a los grupos políticos de la forma siguiente:

1. Un fijo de 100€ mensuales por grupo político municipal.
2. Un variable de 25€ mensuales por concejal.

Tendrá efectos retroactivos desde el 17 de junio.

Sometida a votación la propuesta resulta aprobada por 4 votos a favor (O.E.O.), 0 en contra y 2 abstenciones (EH BILDU).

Aitor Urkiola toma la palabra para manifestar lo siguiente:





OLABERRIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA

zentrua, jubilatua, herritarrak, Jokin ( Lahar enpresako langilea eta jubilatuen dinamizatzailea), Caritas, gurutze gorria, etabar...

Egon daitezkeen gabeziak detektatzeko balioko liguke, harreman irekia sortzen du. Goierriko hainbat udal txikietan oso ondo funtzionatzen dute. Adibidez Idiazabalen. Adineko jende asko dugu herri guztian zehar eta zaindu behar ditugu. Beharrak asetzeko foro bat izan daiteke. Pertsonen duintasuna erdigunean jarriz, detekzioa. Azken finean bizitza duina bermatzea zaintzaren bidean.

**Eta aztertzeko beste gairik egon gabe, Alkate jaunak bukatutzat ematen du bilkura 18:30ak direnean, eta nik, Udalbatzako Idazkariak, adierazitako guztiaren Akta egiten dut.**

**Y sin más asuntos por tratar, el Sr. Alcalde da por terminada la sesión cuando son las 18:30 minutos de la tarde, y yo, Secretario de la Corporación, expido el Acta de todo lo manifestado.**

**ALKATEA / EL ALCALDE**

**IDAZKARIA / EL SECRETARIO**